

Gaixo nago

Entzun audioaren **lehen zatia**. Markatu **egia** den ideia.

- Josuk botika hartu du.
- Josu ez da joan azkar medikutara.

Irakurri esaldi hauek. Ondoren, **entzun bigarren zatia**. Zein da ideia zuzena?

1. Zer gertatu da Josurekin?

- Sukar gutxirekin segitzen du.
- Birikak eta eztarria gaizki dauzka.
- Pneumonia du.

2. Zer esan dio medikuak Josuri?

- Ohean geratu behar du.
- Mendingian botika hartu behar du.
- 7 egun etxean pasatu behar ditu.

3. Zer gertatu da Josuren planarekin?

- Ez da ezer gertatu.
- Ez da Pirinioetara joango.
- Ez da etxean geratuko.

Audioaren erantzunak

Egia den ideia.

Josu ez da joan azkar medikutara.

Idea zuzena.

1. *Birikak eta eztarria gaizki dauzka.*
2. *Ohean geratu behar du*
3. *Ez da Pirinioetara joango.*

Audioaren transkripzioa

SENDAGILEA.- Egun on, gazte.

JOSU.- Egun on, bai.

SENDAGILEA.- Esan, zer duzu?

JOSU.- Bueno... sukar pixka bat edo.

SENDAGILEA.- Noiztik?

JOSU.- Astebete edo.

SENDAGILEA.- Eta orain arte ez zara etorri! Gaurko gazte hauek...

JOSU.- Hasieran ez zen ia ezer, baina poliki-poliki... Orain ezin dut hitz egin ere.

SENDAGILEA.- Tira, erantzi alkandora eta eseri hor.

JOSU.- Hemen?

SENDAGILEA.- Bai. Sukarra ez da bakarrik joaten, tratatu egin behar da.

JOSU.- Ez da gauza handirik izango, ezta? Bihar mendira noa lagunekin eta...

SENDAGILEA.- Ia ba, hartu arnasa, bota, hartu arnasa, bota... Ireki ahoa...

JOSU.- Aspaldi egin genuen plana eta aterpetxe bat hartu dugu Pirinioetan.

SENDAGILEA.- Ba zu ez zoaz. Zer nahi duzu, mendiko haizearekin gripea pneumonia bihurtzea, ala?

JOSU.- Ez, hau ez da ezer.

SENDAGILEA.- Ez zaude batere ondo: birikak beteta dauzkazu, eztarria urratua eta sukarra daukazu. Beraz, botika bat eta hiru egun ohean. Limoi-ura ezti pixka batekin ere ondo etorriko zaizu.

JOSU.- Baina ezin naiz etxean geratu. Lagun guztiak joango dira eta urtean behin bakarrik elkartzen gara.

SENDAGILEA.- Errua zurea da, lehenago etorri behar zenuen.

JOSU.- Ez diot garrantzirik eman. Ez da ezer izan.

SENDAGILEA.- Gazte, hobe duzu kasu egin eta osasuna zaintzea. Edukiko duzu aukera gehiago lagunekin planak egiteko.

JOSU.- Aste osoa lanean eta asteburua ohean! Kaka!

SENDAGILEA.- Errezeta bat egingo dizut. Zoaz botikara eta handik ohera, zuzen-zuzen.

JOSU.- Eskerrik asko, sendagile jauna!

SENDAGILEA.- Eta hurrengoan, garaiz etorri. Aio.